

HERNANIKO UDALA*Iragarkia*

Hirigintza Antolamenduaren Osagarri den Udal Ordenantza Multzoaren I. Liburuaren Lehen Tituluaren (Eraikuntza Ordenantzak) aldaketa 2013ko azaroaren 12an argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (215 zk.). Erabakiaren izen osoa hau da: Hirigintza Antolamenduaren Osagarri den Udal Ordenantza Multzoaren I. Liburuaren Lehen Tituluaren (Eraikuntza Ordenantzak) aldaketa, zeinen bidez artikulua bat gehituko baita I.2. Kapitulan - Etxebizitzetarako lur-zatien («a» lur-zatiak) eraikuntza-ordenantzak, zehazki Bigarren Atalean (I.2-2) «Etxebizitza-eraikineko zenbait elementu arautzen dituzten baldintzak» izenekoaren barruan.

Kontua da akats bat egin zela eta iragarki hori aldaketa dokumentua jendaurrean ikusgai egoteko epea bukatu aurretik argitaratu zela (epea 2013ko azaroaren 20an bukatzekoa zen).

Gauzak horrela, iragarki honen bidez akats hori zuzendu nahi da, eta 2013ko azaroaren 12an argitaratutako agiri bera argitaratzen da berriz ere, jendaurrean ikusgai egoteko epea dagoeneko bukatua dagoelarik.

**LEHEN TITULUA (I)
ERAIKUNTZA ORDENANTZAK**

**I.2 KAPITULUA ETXEBIZITZETARAKO LUR-ZATIEN
(«a» LUR-ZATIAK) ERAIKUNTZA-
ORDENANTZAK**

Bigarren Atala (I.2-2) Etxebizitzetarako eraikinen zenbait elementu arautzen dituzten baldintzak

I.2-2.10 Artikulua. Etxebizitzen gutxieneko (batez besteko) tamaina dentsitate txikiko «a.30» bizitegi-eremuetan.

1. Dentsitate txikiko «a.30» bizitegi eremuetan kokatuta eta indarrean dagoen hirigintza antolamenduak kontsolidatuta dauden familia bakarreko edo bi familiako eraikinetan barruko zatiketa egin ondoren gertatzen diren etxebizitzetako gutxieneko tamainak Hernaniko Udalerrian indarrean dauden Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren «Hirigintza Arau Orokorren» B.1 Dokumentuaren 57. artikulua 2.A atalean horri dagokionez jasota datorrena bete beharko du.

2. Hori hala izanik ere, eraikin horiek 1954ko abenduaren 20a baino lehen eraikiak badira (data horretan onartu zen behin betiko Hernaniko Hirigintza Antolamenduaren Lehen Plan Orokorra), eraikin horiek barrutik zatitzeko aukera egongo da baldin eta zatiketaren ondorioz gertatzen diren etxebizitzetako batez besteko tamaina 150 m²/etx. baino gutxiagokoa bada (azalera erabilgarria).

Elementu katalogatuen kasuan, barrutik zatitzeko aukera hori izateko, lehenik kasu bakoitzean aplikagarria izango zaien babes-erregimena bete beharko dute.

AZKEN XEDAPENA

I.2-2.10 Artikulua, agiri honen gaia, alegia, Udal Ordenantza Multzoan sartuta geratu da ondorio guztietarako. 1. Liburua – I.2. Kapitula - Etxebizitzetarako Lur-Zatien («a» lur-zatiak) Eraikuntza-Ordenantzak, Bigarren Atala (I.2-2) «Etxebizitza-eraikineko zenbait elementu arautzen dituzten baldintzak» idazpurupean eta, horren arabera, artikulua zehaztapenak Atariko Titulua - «Xe-

AYUNTAMIENTO DE HERNANI*Anuncio*

En el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 215, de 12 de noviembre de 2013, fue publicado el anuncio de aprobación definitiva de la Modificación del Título Primero (Ordenanzas de Edificación) del Libro-I del Cuerpo de Ordenanzas Municipales complementarias de la ordenación urbanística, la cual conlleva la adición de un artículo complementario dentro del Capítulo I.2 Ordenanzas de edificación correspondientes a parcelas residenciales (parcelas «a»), y en concreto en la Sección Segunda (I.2-2): Condiciones reguladoras de diversos elementos de la edificación residencial del mismo.

El mismo fue publicado, por error, antes de la finalización del plazo de exposición pública del documento de modificación, que finalizaba el 20 de noviembre de 2013.

Mediante el presente anuncio se procede a subsanar el citado error, reproduciendo nuevamente la publicación de fecha 12 de noviembre de 2013 una vez agotado ya el plazo de exposición pública.

**TITULO PRIMERO (I)
ORDENANZAS DE EDIFICACION**

**CAPITULO I.2 ORDENANZAS DE EDIFICACIÓN
CORRESPONDIENTES A PARCELAS
RESIDENCIALES (PARCELAS «a»)**

Sección Segunda (I.2-2) Condiciones reguladoras de diversos elementos de la edificación residencial

Artículo I.2-2.10. Tamaño (pro)medio mínimo de las viviendas en ámbitos residenciales de baja densidad «a.30».

1. El tamaño mínimo de la vivienda media resultante de actuaciones de división interior de edificios uni-bifamiliares preexistentes, ubicados en ámbitos residenciales de baja densidad «a.30» y que hayan quedado consolidados por la ordenación urbanística vigente, atenderá a lo previsto al efecto en el apartado 2A del Artículo 57 del Documento B.1 - «Normas Urbanísticas Generales» del Texto Refundido de la Revisión de las NNSS vigentes en el municipio de Hernani (aprobadas definitivamente el 11 de abril de 2011).

2. Sin perjuicio de lo anterior, cuando tales edificios estén construidos con anterioridad al 20 de diciembre de 1954, fecha de aprobación definitiva del primer Plan General de Ordenación Urbana de Hernani, podrán ser divididos interiormente siempre que el tamaño resultante de la vivienda (pro)medio no sea inferior a 150 m² /viv (superficie útil).

Esta posibilidad de división interna de estos edificios, cuando se trate de elementos catalogados, debe entenderse sometida al cumplimiento previo de las limitaciones derivadas del régimen de protección patrimonial que les sea de aplicación.

DISPOSICION FINAL

El Artículo I.2-2.10, objeto del presente documento, queda incorporado, a todos los efectos, en el vigente Cuerpo de Ordenanzas Municipales. Libro - 1, en el Capítulo I.2 - Ordenanzas de Edificación Correspondientes A Parcelas Residenciales (Parcelas «a»), en su Sección Segunda (I.2-2) «Condiciones reguladoras de diversos elementos de la edificación residencial», y en

dapen Orokorrak» I.1. Kapituluua - Lehen Tituluaren Xedapen Orokorrak - «Eraikuntza-Ordenantzak» idazpurupean aurreikusitakoari lotuta daude.

Hernani, 2013ko azaroaren 25a.—Luis Intxauspe Arozamena, Alkatea. (11128)

función de lo cual, sus determinaciones quedan sujetas a lo previsto en el Título Preliminar - «Disposiciones Generales» y en el Capítulo I.1 - Disposiciones Generales del Título Primero - «Ordenanzas de Edificación», que forman parte del citado Cuerpo de Ordenanzas.

Hernani, a 25 de noviembre de 2013.—El Alcalde, Luis Intxauspe Arozamena. (11128)